

## Mendaur VIII

Aurkezpena (2010-VI-02)

*Andres Iñigo*

Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuarekin duen hitzarmenenaren egitasmo berezi gisa sortu zen MENDAUR bilduma, batik bat, Nafarroako euskararen lekukotasunez eta berezitasunez osatzen joateko asmoz.

- Hasiera batean bi liburuki aurkeztu ziren:

I. *Jose Mari Satrustegi, ereile eta lekuko* (A. Iñigo).

II. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (P. Salaburu & M. Lakar).

- Ondotik hiztegia lantzen zuten bi ale aurkeztu ziren:

III. *Luzaideko euskararen hiztegia* (P. Kamino & P. Salaberri)

IV. *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia* (O. Ibarra)

- Iaz bertze bi liburuki:

V. *Erronkari eta Antsoko toponimia* (J. K. Lopez-Mugartza)

VII. *Baztan-Bidasoko hizkeren azterketa dialektologikoa* (E. Zelaieta)

Gaur Koldo Zuazoren eskutik datorkigun VIII. alea dugu, *Sakanako euskara. Burundako hizkera* izenekoa. Eremu geografiko zabal hartako hizkeraren ikerketa sakona eta garrantzitsua eskaintzen digu egileak. Eskertzeko lana da, hain zuzen ere, Burundako hizkera, Urdiainen izan ezik, gainerako herri batzuetan erdi galdua eta bertze batzuetan desagertze dagoen unean bildu eta argitara emateko egindako ikerketa hau dialektologian trebetasuna eta ezagutza handia duen ikertzaile baten eskutik datorkigulako.

Nafarrentzat pozgarri da bere eskualde bateko horrelako lan bat esku artean izatea, eta, erran beharrik ez dago, Euskaltzaindiarentzat material hagitz baliagarria izanen dela euskara batua hobeki hornitzen, osatzen eta aberasten joan ahal izateko.

Eskerrik asko eta zorionak, gaurkoan, Koldo Zuazo egileari.

Eta Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuarekin berretsi eta indarrean duen hitzarmenean bildua dagoenaren arabera, aurrerantzean ere segituko dugu euskararen bertze hainbat lekukotasun eta testigantza argitara ematen.